



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2021eko lehen hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Ziurgabetasunak "normaltasunera itzultzea" baldintzatzen du.....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	7
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	11
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	17
Eranskina – Aurkibideak	23
Eranskina – Metodologia	27
Fitxa Teknikoa	30

ZIURGABETASUNAK "NORMALTASUNERA ITZULTZEA" BALDINTZATZEN DU

- covid-19aren "hirugarren olatuak" murriztu egin ditu suspertzeko igurikimenak
- txertaketaren hasiera ez da izan nahikoa konfiantza hobetzeko
- enpleguaren eta BPGren hobekuntza arinak susperraldia izateko joera adieraziko luke



a covid-19aren “hirugarren olatuak” murriztu egin ditu suspertzeko igurikimenak


Neguko balantzeak hautsi egin ditu Covid-19ak sortutako pandemiaren intzidentzia kontrolatzeari buruzko aurreikuspen baikorrenak. EB-27ko lau herrialde nagusietan, milioi bat biztanleko kasu berri kopuruaren bilakaerak udatik erregistratutako aurrerakada izan du, eta (kasu bakoitzean) mugikortasuna murrizteko (eskualde eta herrialdeen artean) neurriak indarrean jartzea ekarri du funtsezkoak ez diren jardueretan (ostalaritza, merkataritza, kultura eta aisialdi arloko jarduerak eta abar), baita hezkuntzako jardueretan ere.

Pandemia hasi zenetik urtebete egin denean, “olatuen” arabera pandemiaren eragina berretsi egin da, une eta intentsitate maila desberdinekin, pertsonen arteko kontaktu mailaren eta lortutako immunizazio mailaren arabera baldintzatuta, betiere.

— Herrialdeko adierazleak —

	Diagnostikatutako kasuak. Total	Inzidentzia biztanleko (%)
Alemania	2.450.295	2,92
Frantzia	3.747.263	5,74
Italia	2.925.265	4,84
Espainia	3.188.553	6,82

Milioi bat biztanleko eguneroko kasu berriak (%)



b | txertaketaren hasiera ez da izan nahikoa konfiantza hobetzeko

Urte hasieran, Estatuaren zati handi batean, aforo, mugikortasun eta itxiera perimetralen murrizketa berriak izan dira, pandemiaren hirugarren olatuaren eragina arintzeko asmoz. Horren ondorioz, positibotasun-ratioan jaitsiera izan da, baina otsaila amaitutakoan, oraindik ere sei komunitatek soilik zuten gomendatutako (OME) % 5 baino ratio baxuagoa.

Abenduaren 27an abiatutako txertaketa-kanpainan dagoeneko lau formula daude sartuta, eta horrek prozesua azkartzea ekarriko du. Otsailaren 25ean, guztiz txertatuta dauden herritarren ehunekoa % 2,668koa zen (Espainia), komunitate autonomo batetik bestera aldeak izanik. Alde horiek desagertzen joango dira txertaketa-planak bete ahala.

Albiste horien inpaktuak –eta ekonomia eta enpleguaren bilakaerari dagozkionak– benetan balio ezkorretan mantendu dute familien konfiantza, eta oraindik ere 2008ko krisiaren oso antzeko mailetan.

Emaizta positiboak egindako testen gainean (%)
Txertaketa biztanleko (%)

	Positiboena tasa ¹		Txertaketa tasa ² 02/25a arte
	01/18/ eta 01/24 bitartean	02/16 eta 02/22 bitartean	
Andaluzia	20,12	9,14	2,66
Aragoi	19,86	10,35	3,46
Asturias	10,09	6,19	3,80
Balearrak	11,49	3,94	1,80
Balentzia	29,04	12,54	2,00
Canariar irlak	6,38	4,68	2,35
Cantabria	9,28	4,99	3,49
Gazt.-Leon	29,14	6,77	3,71
Gazt. Mantxa	11,72	8,87	3,27
Katalunia	7,64	6,15	2,39
Extremadura	16,8	4,14	3,63
Galizia	11,95	3,58	2,17
Errioxa	16,31	5,08	2,88
Madril	20,88	8,18	2,53
Murtzia	18,18	6,66	3,30
Nafarroa	8,94	4,57	3,22
Euskadi	9,46	5,91	2,08
Espainia	15,84	7,17	2,62

¹ Egindako testen gaineko positiboena ehunekoa. ² Txertatutako pertsonen % (dosi guztiak) biztanleriarekiko. Iturria: Alerta eta Larrialdi Sanitarioen Koordinazio Zentroa (2021eko otsailak 25 eta 26) eta INE


Kontsumitzailearen konfiantza. EAE. 2008 krisia eta 2020 krisia

	2008ko krisia				covid-19 krisia			
	III-08	IV-08	I-09	II-09	II-20	III-20	IV-20	I-21
Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	-25	-29	-30	-33	-24	-30	-33	-32

Iturria: FCVN (2012 arte) eta Laboral Kutxa

c enpleguaren eta BPGren hobekuntza arinak susperraldia izateko joera adieraziko luke

- Erregistratutako langabezia-tasak behera egin du: 129.028 pertsona otsailean; iazko otsailean (Covid-19 aurretik) baino 11.789 gehiago, baina abuztuan baino 17.422 gutxiago (146.450; 2020ko daturik okerreana).
- Afiliazioak gora egin du: 951.778 pertsona otsailean; iazko otsailean (covid-19aren aurretik) baino 21.374 gehiago, baina abuztuan baino 13.193 gutxiago (938.585; 2020ko daturik okerreana).
- Hobekuntzarako bidea hazkunde ekonomikoan: 2020ko laugarren hiruhilekoan, BPGren bilakaera positibo mantendu da, hirugarren olatuko murrizketak izan arren.



EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantza (oraindik) ez da suspertu
- ezta EBko eta Espainiako familietan ere
- Frantziako, Alemaniako eta Herbeheretako familiekin partekatutako ezkortasuna



1 EAEko familien konfiantza (oraindik) ez da suspertu

2021eko lehen hiruhilekoan EAEko familien konfiantza (-32 puntu) balio oso negatiboetan mantentzen da: azken sei urteetako emaitza okerrenak izan dituzten lau hiruhileko izan dira jarraian, eta horrek erakusten du pandemia batek izandako eragina, pertsonen bizitza pertsonal, sozial, laneko eta ekonomikoa baldintzatu baitu.


Pandemia-urte honetan zehar familien konfiantza-galera benetan handia izan da. Argi eta garbi, herritar gehienak immunizatzeak eta kontrol epidemiologikoak, jarduera ekonomikoa nahiz enplegua suspertzearekin batera, izango dira familien konfiantza hobetzea ekarriko duten faktoreak. Edonola ere, bigarren seihilekora atzeratu da hobekuntza hori.



2 ezta EBko eta Espainiako familietan ere

Pandemia mundu mailakoa izatea, ezarritako murrizketa eta mugak eta enpleguan nahiz ekonomian izandako eragina Europako eta Espainiako familiek partekatzen dituzten faktoreak dira, eta benetako ezkortasuna dakarren egoera osatzen dute.

2021eko lehen hiruhilekoak erakusten du EB-27ko (-16), Estatuko (-24) eta EAeko (-32) familien igurikimenak oraindik ere ezkorrak direla, eta hobekuntzatik urrun daudela: ez da aldaketarik erregistratu ez aurreko hiruhilekoarekiko, ez azken urtean. Horrek adierazten du desconfiantza egonkortuta eta baldintzatuta dagoela; hau da, guztiaren gainetik, osasun-krisia konpondu behar dela normaltasun sozial eta ekonomikora itzultzeko ezinbesteko abiapuntu gisa.



1. I. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urtarrila-Otsaila batez bestekoa.


3 | Frantziako, Alemaniako eta Herbeheretako familiekin partekatutako ezkortasuna

Frantziako (-15) eta Alemaniako (-13) familien konfiantza negatibo mantendu da; Herbehereetan ez da hain kopuru ezkorra izan (-8), eta aldiz, Danimarkan (3) balio positiboetan mantendu da.

Oro har, aztertutako herrialde guztietan ezkortasuna aurreko hiruhilekoaren antzeko balioetan mantendu da, eta garrantzitsuak izan dira Covid-19aren hirugarren olatuaren eragina eta Covid-19aren ondoriozko positibotasun-ratioaren igoera.

Kontuan hartu beharrekoa: herritarren txertaketa lau herrialdeetan hasi da, baina horrek ez du eragotzi mugikortasuna mugatzeko neurriak, jarduera-mugaketa (ostalaritza) eta/edo etxeratze agindua mantentzea.

———— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak ————



1. I. Lauhila-beteko datua behin behinekoa da. Urtarrila-Otsaila batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan, ezkortasuna mantentzen da
- enpleguaren gaineko igurikimenean hobekuntza txikia izan da, behea jota jarraitzen duten arren
- konfiantza pixka bat gehixeago dute familiako ekonomiarekiko
- familiako aurrezkiari buruzko igurikimenak ia positiboak baitira
- baina, familiak ezkor daude, hobetzeko itxurarik ez duen egoera ikusita

4 | ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan, ezkortasuna mantentzen da

2021eko lehen hiruhilekoan, EAEko familien ezkortasuna ikus daiteke ekonomiaren bilakaera orokorrari dagokionez (-48, +2 puntu): hamar familiatik zazpik uste dute datozen hamabi hilabeteetan egoera ekonomiko orokorra egungoa baino okerragoa (% 38) edo askoz okerragoa (% 35) izango dela, eta aldiz, hamarretik hiruk uste dute berdin mantenduko dela (% 17) edo hobetu egingo dela (% 10).

Gainera, EAEko gizartean zeharkakoa da ezkortasun hori. Hala ikus daiteke adin-taldean arabera: banaketan (-29, -36 eta -32, hurrenez hurren, 25-39 urte artekoentzat, 40-54 urte artekoentzat eta 55-74 urte artekoentzat), Lurraldekakoan (-34, -32 eta -31, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban) edo lan-egoeraren arabera ere (-36, -33 eta -31, langabetuentzat, okupatuentzat edo erretiratuentzat).

Kezka hori justifikatuta legoke, euskal BPGk 2020an urte arteko atzerakada handia izan duela (Eustat) aintzat hartuta (-% 9,5), hain zuzen ere, 2009an erregistratutakoa baino dezentez handiagoa da (-% 4,1 izan zen orduan).




5 | enpleguaren gaineko igurikimenean hobekuntza txikia izan da, behea jota jarraitzen duten arren

EAEko familiek langabeziaren bilakaerari buruz dituzten igurikimenak ezkorrak dira oraindik ere (-56), baina egia esan, igoera txiki bat izan dute (+4 puntu). Izan ere, datuen arabera, hamar lagunetik zortzik uste dute langabezia handitu egingo dela (% 34 eta % 42, gutxi edo asko), eta hamarretik bik soilik uste dute berdin jarraituko duela (% 16) edo murriztu egingo dela (% 7).

Igurikimenak igurikimen, EAEn erregistratutako langabezia eta Gizarte Segurantzako afiliazioa 129.028 eta 951.778 pertsonakoa da (otsaila), hurrenez hurren. Datu horiek agerian uzten dute hobekuntza izan dela afiliazioan (+894) eta langabezian jaitsiera izan dela (-1.207), urtarrilarekiko. Hala ere, duela urtebete baino emaitza okerragoak dira oraindik ere (117.239 eta 973.152 pertsona, 2020ko otsailean), nahiz eta nabarmen hobetu diren abuztuarekiko (146.450 eta 938.585 pertsona, 2020ko daturik okerrenak). Azken batean, datuek adierazten dute hobekuntza (mantsoa) izan dela.


Langabeziarekiko igurikimenak



6 | konfiantza pixka bat gehixeago dute familiako ekonomiarekiko

EAEko familiek igurikimen ezkorra dute datozen hilabeteetan familiako ekonomiaren bilakaerari dagokionez (-16, +1 puntu). Adierazle horrek agerian uzten du pandemia hasi zenetik (2020ko bigarren hiruhilekoa) igurikimenak nabarmen okertu direla familietan, baina hala ere ez dira ekonomia orokorrari (-48) eta langabeziari (-56) dagozkionak bezain ezkorrak.


Emaitza honetan erabakigarria da familien bi herenek berdin (% 67) edo hobeto (% 4) jarraituko dutela uste izatea; aldiz, heren batek uste du apur bat (% 21) edo askoz (% 8) okerrago egongo direla. Hau da, familia gehienentzat egonkortasuna da nagusi eta balorazio okerragoa izateko gorabehera, neurri handian, lan-egoeraren araberakoa da, hala, langabezia dauden pertsonen artean indizea okerragoa da (-23) okupatuta (-15) edo erretiratuta (-16) daudenena baino.



7 | familiako aurrezkiari buruzko igurikimenak ia positiboak baitira

2021eko lehen hiruhilekoan, EAEko familien aurrezkiari buruzko igurikimenak (datozen hamabi hilabeteak) balio apur bat negatiboa du (-6, -1 puntu). Izan ere, familien erdiek diote ziur (% 17) edo seguruenik (% 35) aurreztu egingo dutela, eta beste erdiak uste du seguruenik ez duela aurreztuko (% 16) edo ziur dagoela ezetz (% 32).

Aurrezteko gaitasunaren inguruan familiek duten pertzepzioa (kontsumo-murrizketek ahalbidetutakoa), bat dator Estatuko familien aurrezkiari buruzko emaitzarekin (EIN). Hala, errenta erabilgarriaren gaineko aurrezki-tasa % 7,2koa da (2020ko lehen hiruhilekotik hirugarrengora metatuta). Balio hori susperraldi ekonomikoko 2018ko eta 2019ko (% 1,2 eta % 1,3) eta krisi-garaiko 2009ko eta 2013ko (% 5,8 eta % 3,4) aldi berean erregistratutakoa baino nabarmen altuagoa da.



8 | baina, familiak ezkor daude, hobetzeko itxurarik ez duen egoera ikusita

2021eko lehen hiruhilekoa EAEko familien artean sendotutako ezkortasunarekin abiatu da, Covid-19ak eragindako pandemiaren hirugarren olatuaren ondorioek eraginda. Eguberrietatik ezarritako mugek eta murrizketek, susperraldi ekonomikoaren eta enpleguaren nolabaiteko atzerapenak eta immunizazio kolektiboan maila seguruak lortzeko atzerapen posibleak, bestek beste, mugatu zitzaketen konfiantza azkar berreskuratzeko aukerak.

Ekonomia orokorraren (-48) eta enpleguaren (-56) igurikimenak ezkorak dira, eta gehiengoak egoera okertu egingo dela uste izatea adierazten du horrek. Hala ere, familiako ekonomiaren (-16) eta aurrezkiaren (-6) gaineko igurikimenak ez dira hain ezkorak.

EAEko familien konfiantza-indizea negatiboa da oraindik (-32), eta ia pandemian murgildutako aurreko hiru hiruhilekoekiko balio bera errepikatu du: familiek oso azkar barneratu dute ekonomia orokorraren eta enpleguaren kaltetzea, aldiz, hobekuntzari buruzko albisteak (enpleguaren galera pixkanaka murriztea, pandemiaren intzidentzian jaitziera edo txertaketa zabaltzea) ez dira nahikoa izaten ari konfiantza berreskuratzeko.


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>IIH-20</u>	<u>IIIH-20</u>	<u>IVH-20</u>	<u>IH-201</u>	<u>Aldea</u>
Familien konfiantza	1	-2	-22	-24	-30	-33	-32	+1
Ekonomia orokorra	3	-6	-33	-32	-45	-50	-48	+2
Etxeko ekonomia	-4	-2	-12	-13	-15	-17	-16	+1
Langabeziaren bilakaera	10	-4	-41	-44	-58	-60	-56	+4
Aurrezteko gaitasuna	-5	2	-2	-6	-4	-5	-6	-1



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatzen ari dela dirudi
- erosteko unearen inguruko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du(zuhurtzia?)
- “erosketa handien” gaineko igurikimenak hobetu dira, nahiz eta oraindik negatiboak izan
- familia oso gutxik erosiko dute etxea edo autoa
- erosketa handiak eta inbertsioak egiteko asmoa oso motel ari da hazten




9 | prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatzen ari dela dirudi

2021eko lehen hiruhilekoan, EAEko familiek prezioen bilakaerari buruz duten balorazioa okertu egin da (-28, -5 puntu): hamar familiatik lauk (% 44) uste dute prezioek orain baino azkarrago egingo dutela gora, aldiz, beste lauk (% 39) uste dute orain arte bezala haziko direla eta bi familiak baino gutxiagok (% 16) uste dute mantsoago egingo dutela.

Hala, indizearen balioa prezioen gorako joera baten barruan mantentzen da (-31, -16, -23 eta 28, 2020ko bigarren hiruhilekotik 2021eko lehen hiruhilekora).

EAEko familiek inflazio-gorakadaren gaineko igurikimena mantentzen dute, urtarrileko KPIarekin bat eginik, urte arteko tasa positiboa izan baitzuen (+% 0,6 eta +% 0,5, EAEEn eta Estatuan), zortzi hilabetez jarraian tasa negatiboetan egon ondoren. Baina otsailean (Estaturak) erregistratutako urte arteko igoera % 0koa izan da. Beraz, inflazio-gorakada berresteke dago.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.


10 | erosteko unearen inguruko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du (zuhurtzia?)

Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Familien ezkortasunak erosketa-uneke balorazioa kaltetzen du (-13) eta, okerragotu ez den arren eta aurreko hiruhilekoko balio bera duen arren (-13), 2017ko eta 2019ko balio ia positiboetatik urrundu egin da (-2 eta -5, urteko batezbestekoa). Oro har, axolagabetasun-iritzia nagusi den arren (familien % 45, -9 puntu), erantzuna polarizatu egin da, eta handitu egin dira une ona (% 21, +5 puntu) edo txarra (% 34, +4 puntu) dela uste dutenen taldeak.

Ekonomia orokorraren eta enpleguaren inguruko igurikimenek baldintzatu egiten dute erosketa-unearen balorazioa. Hala, igurikimenak hobekak izanez gero, erosketa-unearen balorazioa berreskuratzea erraztuko litzateke, eta bitartean, zuhurtzia da nagusi.

Erosteko unearen balioztapena¹



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez


11 “erosketa handien” gaineko igurikimenak hobetu dira, nahiz eta oraindik negatiboak izan

Nolakoak uste duzu izango direla etxeke erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeke konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien erosketa handien gaineko igurikimen-indizeak pandemiaren araberako bilakaera izan du, eta balioak 2020ko eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean +3, -17, -21, -12 eta -9koak izan dira. Segida horrek erakusten du 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan jaitziera handia erregistratu zela, eta aldiz, laugarren hiruhilekoan susperraldi arina hasi zela.

Hobekuntzarako joera hori finkatzea eta balio positiboetara itzultzea ekonomia orokorraren, enpleguaren eta familien egoeraren inguruan familiek dituzten igurikimenen mende egongo da, erosketa handien erabakiak baldintzatzen baitituzte. Beraz, lehen hiruhilekoa esperantzarria da (hobekuntza txikia), 2021ean zehar sortuko den hobekuntza adierazten baitu, testuinguru argiagoa eta positiboagoa lortu ahala.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(personen %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 familia oso gutxik erosiko dute etxea edo autoa

EAEko familien % 1,3k erosiko du etxebizitza¹ datorren urtean; ehuneko horrek zertxobait hobetzen ditu azken hiru hiruhilabetekoetako erregistroak. Edonola ere, familia gehienetan ez dago batere erosteko asmorik, beraz, salerosketen bolumenean gorakada nabarmenik ez da aurreikusten, ez epe laburrean behintzat.

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Ibilgailuren bat erosiko duten familien ehunekoa mantendu egin da (% 5,3), eta ez du hobetzeko joera argirik erakusten. Eskaria ahula izatearen garrantzia berresten du horrek, besteak beste, faktore hauen eraginez: motorizazioa (fiskalitatea) aukeratzeko garaian dauden zalantzak edo erosketarako laguntzen hedapena, adibidez; eta horri, gainera, biztanleriaren zahartzearen¹ eta ohitura-aldaketek intzidentzia gehitu behar dizkiogu.

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 | erosketa handiak eta inbertsioak egiteko asmoa oso motel ari da hazten

2021eko lehen hiruhilekoak adierazten duenez, EAEko familiek...

- Prezioetan nolabaiteko gorakada izango den egoera aurreikusten dute (-28), bederatzi hilabetez jarraian (apiriletik abendura) hileko KPI urte arteko tasa negatiboetan egon ondoren.
- Erosketa-unearen balorazioa oraindik ere negatiboa da (-13), baina ez da okertu.
- Erosketa handiak egiteko igurikimenak hobetu egin dira (-9, +3 puntu), ziurrenik familien aurrezkiari esker, eta ekonomia orokorraren eta enpleguaren balorazioa negatiboa izan arren.
- Etxebizitza edo autoa erosiko duten familien multzoa txikia da oraindik, eta hori handitzeko, argitu beharko da egungo erantzuna zeren ondorio den: eragin koiunturalari dagokion (pandemiak eragindako krisia) edo egiturazko joerak garrantzia hartzen ari diren (gizarte zahartua izatea, adibidez), erabakigarriak baitira eskaera hori suspertzeko.

Hirugarren olatuak mugikortasuneko murrizketa berriak ekarri ditu, eta pertsonen eguneroko bizitza mugatu du, hala, 2021eko lehen hiruhileko honetan kontsumitzailearen konfiantza baldintzatu da. Hala ere, datuek egoera epidemiologikoa hobetu egin dela erakusten dute, eta pixkanaka immunizazioan aurrera egin dela. Horiek dira bigarren hiruhilekoan faktore garrantzitsuenak, familietako kontsumoa sustatzea bideratuko dutenak.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2018	2019	2020	II H-20	III H-20	IV H-20	I H-21	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-17	-23	-20	-31	-16	-23	-28	-5	▼
Erosteke unearen balorazioa	-9	-5	-13	-22	-10	-13	-13	0	▶
Erosketak egiteko igurikimenak	-6	0	-12	-17	-21	-12	-9	+3	▲


¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	II H-20	III H-20	IV H-20	I H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-24	-30	-33	-32	▶
• Estatua*	-6	-23	-29	-27	-28	-24	▶
• EB*	-6	-15	-21	-16	-18	-16	▶
o Frantzia*	-9	-13	-18	-12	-16	-15	▶
o Alemania*	-2	-10	-16	-9	-11	-13	▶
o Danimarka*	--	--	-2	1	1	3	▶
o Herbehereak*	--	--	-19	-15	-12	-8	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-32	-45	-50	-48	▶
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-13	-15	-17	-16	▶
• Langabezia	-4	-41	-44	-58	-60	-56	▲
• Aurrezkia	2	-2	-6	-4	-5	-6	▶
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-31	-16	-23	-28	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-22	-10	-13	-13	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-17	-21	-12	-9	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,1	0,9	0,9	1,3	▶
• Autoa	6,4	5,3	5,6	4,4	5,8	5,3	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarila-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	II H-20	III H-20	IV H-20	I H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-24	-30	-33	-32	▶
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-19	-21	-34	-29	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-24	-31	-33	-36	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-26	-36	-31	-30	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-28	-36	-33	-30	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	1	-19	-22	-26	-31	-32	▶
• Langabea	-8	-31	-24	-40	-50	-42	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-27	-35	-31	-28	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-30	-42	-45	-39	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-20	-28	-31	-31	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	-21	-19	-21	-18	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	I H – 20	II H – 20	III H – 20	IV H – 20	I H – 21 _p	(azkena)
BPG	-3,2	-19,5	-7,5	-7,6	--	IV hir.
Familien kontsumoa	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1	--	IV hir.
Afiliazioa	-1,0	-2,5	-0,4	+1,8	-2,2	otsaila
Erregistratutako langabezia	5,8	17,0	2,3	-7,9	+10,1	otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-2,8	-11,5	17,5	-1,7	--	IV hir.
Etxebizitzen salerosketa	14,0	-29,9	37,4	-10,5	--	IV hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-35,6	-24,0	118,1	-17,6	-41,8	urtarria-otsaila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Otsailaren 08tik 19ra (2021ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm